

**Eraso
matxistak
kudeatzeko
UEUren
protokoloa**

Aurkibidea

Sar hitza	5
Protokoloaren helburuak, filosofia eta oinarriak	6
Irekitasuna eta itxitasuna	6
Bertsio-gudarik ez	6
Konfidentzialtasuna eta informazioaren kudeaketa	6
Justizia errestauratiboa	6
Ardura kolektiboa	7
Proporzionaltasuna	7
Prebentzioa	8
Sozializazioa	8
Formazioa	8
Indarkeria matxistaren inguruko kokapena	9
Erasoen nolakotasuna	10
Erasoen sailkapena	10
Testuinguruari lotutako faktoreak	10
Aplikazio-eremua eta esku-hartze motak	12
Esku-hartze zuzena	12
Erdibideko esku-hartzea	12
Kudeaketarako bitartekoak	13
Egiturari informazio-ematea	14
Erregistro-tresnak	14
Baliabideak	14
Jarduteko prozedura	15
Erasoaren berri ematea	15
Protokoloaren aktibazioa	15
Egoeraren azterketa	15
Kudeaketaren urratsak eta neurriak	17
Jarraipena	20
Itxiera eta ebaluazioa	20
Erantzun azkarreko gida	24

eraso matxistak kudeatzeko protokoloa

1

Sar hitza

Oro har, jendartean, bereziki emakumeen eta genero-disidenteen artean, feminismoarekiko eta indarkeria matxistarekiko kontzientzia nabarmen handitu da. Horrek eragin du egunerokotasuneko eraso-egoerak identifikatzeko gaitasun handiagoa edukitzea, bai eta horien berri emateko konfiantza eta babes sozial handiagoa sentitzea ere. Izan ere, errazagoa da ezagutzen ez dugun norbaiten jarrerak salatzea, gertukoa den kide baten jarrera matxistei hitza jartzea baino.

Hori dela eta, edozein erakundek edo kolektibok horretarako tresnak edukitzea garrantzitsua da. UEUK bere I. Berdintasun Plana jarri du martxan 2023ko urtetik aurrera, modu kontzientean, antolatuan eta sistematikoan erakundea berdinzaleagoa egiteko eta jarduera orotan feminismoarekiko ezagutza bultzatu zein ikuspegi feminista txertatzeko xedez. Testuinguru horretan kokatu behar dugu

protokolo hau. Funtzio prebentiboa izateaz gain, eraso matxistak kudeatzeko bitarteko nagusia ere izango dena.

Protokoloaren osaketa ahalik eta kolektiboena izateko ahalegina egin da, UEUren egitura guztiak inplikatzeko, zeharkatzea eta bere egitea ezinbestekoa delakoan. Azpimarratzekoa da UEUren izaerari lotzen zaizkion beste erakunde batzuen protokoloak aztertu eta erreferentziak ere hartu direla. Aurretik beste erakunde batzuek egindako lanari ere zor zaio, beraz, UEUK garatu ahal izan duen protokolo hau.

Ez da, ordea, dokumentu itxia izango, etengabeko eraldaketan egongo den tresna bizia baizik. Prozesu errestauratibo eta justizia-eredu feministan sakonduz kasuak kudeatu ahala, eztabaida eta ikaspenetatik egokitzen eta fintzen joango gara, baita esku-hartzeak doitzen ere.

2

Protokoloaren helburuak, filosofia eta oinarriak

UEU indarkeria matxistarik gabeko espazio ahalik eta askeena eta erosoena bilakatzeko bidean protokoloak ekarpen esanguratsua egingo du.

Protokolo honen helburua da UEUren baitan zein UEUri loturiko marko, espazio (offline zein online) edo jardueretan gertatzen diren indarkeria matxistaren zuzeneko kasuen kudeaketa erraztea. Esku-hartzean baliagarria eta praktikoa izango den tresna izatea du xede.

Protokolo **hau klabe eraldatzaile eta erreparatzaileetan oinarrituta ulertu eta aplikatuko da**, eta filosofia horrek markatuko du indarkeriei aurre egiteko jarrera orokorra, printzipio hauei jarraiki:

Irekitasuna eta itxitasuna

Protokolo hau tresna **irekia da, egoerak eta baldintzak askotarikoak direlako** eta, hartara, errezeta itxi, zurrun eta bakarrek balio ez dutelako. Kasuan kasu, aurreikusitako gabeko egoerak kudeatu beharko dira. Alabaina, protokoloa tresna zehatza edo **itxia ere bada, kasu baten aurrean jarraitu beharreko bidea zehazten duelako**, eztabaida amaiezinetan korapilatzea ekidinez.

Bertsio-gudarik ez

Inplikatuak ez daude maila berean, egiturazkoa den botere-harremanen testuinguruan gertatzen dira eraso matxistak.

Bi aldeei entzungo zaien arren, **ez da epaiketarik egingo eta esku-hartzearen helburua ez da arrazoa nork duen erabakitzea izango.** Era berean, ez da eraso jasan duenaren hitza uneren batean ere zalantzan jarriko. Kontuan hartu behar da sinesgarritasuna kentzeak bigarren indarkeria-prozesu bat ere eragin dezakeela.

Gauzak horrela, **erasoa jasan duen pertsona babestea eta laguntzea izango da lehentasuna.**

Konfidentzialtasuna eta informazioaren kudeaketa

Informazioa modu egokian eta diskrezioz erabiltzea garrantzitsua da, inplikaturako pertsonen konfidentzialtasuna gordetzeko eta zurrumurruek ekiditeko, batik bat. Izan ere, zurrumurruek ez dute prozesuan batera laguntzen, eta are, arriskutsuak izan daitezke; eraso jasan duenari zein eraso egin duenari egin diezaiekete kalte.

Hasieratik argitu behar da informazioa eta erabakiak zer markotan kudeatuko diren, eta marko horrek kide guztien konfiantza eta zilegitasuna izan behar ditu.

Zer informazio jaso nahi den, nola eta non landuko den, eta zertarako behar den zehaztuko da, baita horrek prozesuan lagunduko duen edo ez. Ostean, zer eta nola kontatu tentu handiz neurtuko dugu. Oro har, **diskrezioa** garrantzitsua izango da prozesuak bide egokia har dezan.

Justizia errestitutiboa

Erasoak kudeatzeko proposatzen diren prozesuak ikuspegi erreparatzaile eta eraldatzaileetan kokatu asmo dira.

Norabide horretan, hauek izango dira esku-hartzeen helburu nagusiak:

1. Erasoren ondorioz sortu diren **zauriak eta minak** ez handitzea eta, ahal den neurrian, **osatzea**.
2. Erasoa jasan duen pertsonaren **berrosatze-prozesua babestea edo lanketa-prozesu bat martxan jartzen laguntzea**.
3. Erasoa egin duenaren **eraldaketa eta birgizarteratze feministari bide ematea**.
4. **Erasoa ez erreparatzea**, edo gutxienez erasoak ekiditeko talde-dinamikak zaintzea.

Justizia punitiboak proposatzen duen zigorraren orde, eraso egin duenak eragindako mina onartzen badu, prozesu bat abiarazteko aukera eskainiko zaio. Funtsean, lanketa pertsonala edota trebakuntza feminista egitea proposatuko zaizkio, gizotasun-eredu patriarkalaren gaineko errebisioa egin dezan.

Justizia errestitutiboan oinarritutako prozesuan sartzeak ez du esan nahi eraso jasan duenak amorrurik edo gorrotorik sentituko ez duenik. Emozio guztiak ateratzea osatze-bidearen parte da.

Ardura kolektiboa

Eraso bat ez da soilik bi alderen artean gertatzen den zerbait; guztiok baimendu dugu nolabait botere-harreman horiek egotea eta, beraz, guztiona da gertatu denarekiko ardura. Gainera, horrelako gertaerek, **gutxiago ala gehiago, komunitate osoari eragiten diote**, eta ondorioz, geruza guztiek daukate inplikatzeko ardura eta, askotan, berrosatzeko beharra. Izan ere, komunitate politiko eta afektibo batez ari gara. Hori horrela izanik, **lanketak eta esku-hartzeak egiterakoan, hiru subjektu hartuko dira kontuan: eraso egin duena, eraso jasan duena eta kolektiboa edo komunitatea.**

Proporzionaltasuna

Egoeraren arabera prozedurak eta neurriak jarriko dira martxan. Horretarako, eraso mota, testuingurua eta eraso jasan duenaren egoera eta beharrak kontuan hartuko dira, eta hartutako neurriak elementu horiekiko proporzionalak izango dira. Halaber, erasoan inplikaturakoek UEUrekin duten loturaren arabera egingo dira esku-hartzeak.

Kudeaketaz arduratuko den talde bat egongo den arren, erakundeak sostengatu beharreko prozesuak izango dira.

helburuak, filosofia eta oinarriak

3

Prebentzioa

UEU berdinzalea eta feminista egiteko bidean tresna lagungarria izango da protokoloa, beste batzuen artean, barne-eraldaketari bide emango diolako. Zentzu horretan, protokolo bat izatea bera prebentzio-neurritzat hartzen da.

Horrez gain, Berdintasun Planaren bidez hainbat estrategia garatuko dira UEU gune askea izatera ahalik eta gehien hurbildu dadin, norabide horretan espazio zainduak sortuz ere bai.

Sozializazioa

Ezinbestekoa da UEUkide guztiek eta UEUrekin harremanetan dauden elkarte, erakunde zein norbanako guztiek indarkeria matxistaren kontrako protokolo honen berri izatea, bai eta erasoen berri emateko erreferentzia argiak izatea ere. Azken batean, sozializazioa bera prebentzio-tresna garrantzitsua da eta, beraz, horretarako ahalik eta bitarteko gehienak erabiliko dira.

Formazioa

Zalantzarik gabe, formazioa prebentzio-neurri esanguratsuetako bat izango da. **Trebakuntzak ezinbestekoak izango dira indarkeria matxista identifikatzen jakin eta UEUren baitan gerta daitezkeen jarrera matxistei erantzuteko.**

4

Indarkeria matxistaren inguruko kokapena

Indarkeria matxista jendarte-antolaketa patriarkalak emakumeak eta sexu-genero arauetik disidenteak diren pertsonak zapalduta edo azpiratuta mantentzeko duen moduetako bat da, eta gizotasun-eredu jakin batzuen pribilegiozko posizioak eta botere-posizioak iraunaraztea du helburu, genero-hierarkiak birstortzeko eta erreproduzitzeko.

Indarkeria matxistatzat izendatzen da, beraz, espazio fisiko eta sinboliko guztietan ikuspegi eta egitura patriarkalak ezarritako genero-eskematetik at kokatzen diren gorputzen eta identitateen kontra (hots, emakumeen, transen, genero-disidenteen, eta abarren kontra) egiten den edozein eraso mota. Eraso mota horiek gizotasun-eredu patriarkalaren pribilegioak eta botereak iraunaraztea dute helburu, pribilegio edo botere horiek auzitan jartzen dituzten genero-posizioak zigortuz, azpiratuz eta zaugarri eginez.

Gainera, kontuan izan behar da **indarkeria matxista zisheteropatriarkatua, kapitalismoa eta (neo)kolonialismoa gurutzatzen diren sistema batean kokatu** behar dela. Horrek esan nahi du **ezaugarri pertsonal edo sozial askotarikoek eragindako desberdinkeriak gurutzatzen direla hainbat une eta eratan**: generoa, adina, klasea, arraza, jatorria, erlijioa, sinesmenak, nazioa, hizkuntza, aniztasun funtzionala, gorpuzkera, sexu-joera, etab. Horri interseksionalitatea deritzo.

Indarkeriak ez dira eraso isolatuak edota indibidualak, aitzitik, indarkeria matxista estrukturala da, bizitzako esparru guztietan gertatzen da eta dimentsio edo forma askotarikoak ditu, elkarrekin harreman estua dutenak: **indarkeria zuzena** gertakari zehatza da, jarrera edo ekintza bidez eragindakoa eta agerikoa; **egiturazko indarkeriak** botere eta baliabideen banaketa desorekatuari, esplotazioari eta biziraupenerako oinarritzko beharren asebetetzetik ezari egiten die erreferentzia; eta **indarkeria sinboliko edo kulturalak** indarkeria zuzena eta egiturazkoa justifikatzen eta legitimatzen dituen gizarteko esfera sinbolikoa biltzen du. Indarkeria zuzena egile —persona zein talde— batek eragiten du; egiturazko indarkeria eta kulturala, aldiz, ez dira norbaitek eragiten dituen eraso puntualak, sistema sozio-politiko-ekonomikoaren eta kulturaren zati baizik, horien bitartez ezartzen direnak.

Protokolo honek indarkeria matxistaren ondorio diren eraso zuzenen aurrean jarduteko helburua du, eta erakundean izan litezkeen bestelako indarkeriak (sinbolikoa eta egiturazkoa) Berdintasun Planaren bidez landuko dira.

prebentzioa

5

Erasoen nolakotasuna

Erasoen nolakotasuna definitzea garrantzitsua da, **ondoko prozedura markatuko baitu. Horretarako, bi irizpide hartuko dira kontuan: erasoen sailkapena eta testuinguruko faktoreak.**

Erasoen sailkapena

Eraso matxistak aurpegi asko ditu, batzuk oso agerikoak dira; beste batzuk, aldiz, ia oharkabean pasatzen dira: intentsitate ezberdinez agertu eta bizi daitezke, batzuek marka fisikoak **lagatzen dizkigute**, beste batzuek, aldiz, ikusezinak diren markak; batzuk aurrez aurre gertatzen dira eta, beste batzuk, tresna digitalen bitartez **edo hirugarren pertsona batzuen bitartez**; batzuk eguneroko ogia dira, beste batzuk, aldiz, noizbehinkakoak... Baina guztiek, guzti-guztiek, zapalkuntza-sistema patriarkala erreproduzitzen dute: emakumeen eta genero-disidenteen kontrola dute helburu, kontzienteki edo inkontzienteki harreman hierarkizatuak mantentzea

ahalbidetzen dute eta jendarte patriarkal honetan gizon zis heteroek dituzten pribilegioak egonkortzen dituzte.

Beraz, aurretik esan bezala, eraso matxistak identifikatzea, izendatzea eta sailkatzea beharrezkoa izango da neurriak finkatzeko. **Hori horrela, atal honetan** larritasunaren araberako sailkapen bat egin da. Sailkapen bat diogu, beste neurgailu batzuen arabera ere egin zitekeelako, edota beste norbaitek eginda, ziurrena, **sailkapena bestelakoa litzatekeelako.**

Erasoen larritasunaz ari garenean, egungo jendartean –baita gure erakundean ere, jendartearen isla den heinean– erasook duten onarpen-pertzepzioari egiten diogu erreferentzia, baita pairatu dituen pertsonarengan zein komunitatean duten inpaktuari eta eraginari ere.

Erasoak

Sistema heteropatriarkalak oinarri dituen **botere- eta pribilegio-posizioak indartzen dituzten jokabideak** sartu dira hemen. Helburua sistema matxista betikotzea da. Itxuraz sotilak diren arren, behin eta berriz errepikatzen direnean, pixkanaka, intentsitatez igotzen doazen jokabideak dira. Autoestimua hondoratu eta segurtasunik eza eragiten dute, emakume eta genero-disidenteentzat espazio ez askeak bihurtuz.

Eraso larriak

Funtsean, pairatzen dituen pertsona mendearen hartzea helburu duten erasoak dira, kikildu eta kontrolatzeko helburuz diren jokabide oldarkorrak. Horiek pairatzen dituzten pertsonak estres- eta beldur-egoera etengabe batera bultzatzen dituzte, eta haiengan ez ezik, haien ingurunean ere ondorio larriak uzten dituzte.

Eraso oso larriak

Bortizkeria handiko erasoak dira, pairatzen dituen pertsona suntsitzea helburu dutenak. **Deshumanizazioa dakarten erasoak** dira, pairatzen dituenarengan eta komunitatean ondorio oso larriak eragiten dituztenak, bizitza galtzerainokoak.

Testuinguruari lotutako faktoreak

Badaude erasoak larriago, astunago edo pisutsuago egiten dituzten eta baldintzatzen dituzten testuinguru-elementuak. Horiek kontuan hartzea ezinbestekoa da, erasoek dimentsio ezberdina hartzen dutelako horiekiko harremanean: botere-posizioak (erakunde barruko boterea/posizioa/ardura, kokapen soziala edo entzutea, erreputazioa, fama, generoa, adina, jatorria...), maiztasuna, iraupena, intentsitatea, agerikotasuna, ondorioak (albo-kalteak), inpaktua (eragina), arriskua, eraso egin duenak beste salaketa bat aurretik jaso izana...

ERASO LARRIAK

Psikologikoki erasotzea, izaera sexualeko ezezkoaren aurrean behin eta berriz eta etengabe tematzea, izaera sexualeko material grafikoa edo pertsona baten datu pertsonalak edo informazio intimoa bere baimenik gabe zabaltzea, eskatu gabeko eta nahita egindako ukituak egitea, eskatu gabeko lizunkeriak esatea, jazartzea, mehatxatzea, fisikoki zein birtualki jarraitzea, ekonomikoki kontrolatzea, sozialki kontrolatzea, eduki sexuala duten dei, gutun, mezu edo ohar iraingarriak bidaltzea, beldurra eragitea, matxismoaren apologia egitea edota eraso matxistak arinkeriaz hartzea ...

ERASO OSO LARRIAK

Erailtzea, bortxatzea, sexualki erasotzea, fisikoki erasotzea...

ERASOAK

Komunikazio bortitza erabiltzea, bileretan hitza isilaraztea, bileretan txandak ez errespetatzea eta eztabaidak monopolizatzea, denbora eta espazioaren banaketa ez kontrolatzea, sistematikoki hitza kentzea/moztea, gutxiestea, sinesgarritasuna kentzea, begirada lizunak botatzea, aitakeriaz jokatzeko (infantilizatzea), pertsona baten ardura ukatzea eta inbisibilizatzea, ardura daukan pertsonaren gainetik, nahi dena lortzeko norbere boterea erabiltzea, ardura duten emakume edo genero-disidenteengana jo beharrean, ardurarik ez duten gizon zis heteroengana jotzea, bileretan emakume edo genero-disidente batek esandakoa aintzat hartu ez eta gero gizon zis heteroak bere ideia balitz bezala "saltzea", haren ordeko azalpenak ematea, emakume eta genero-disidenteen iritzia, gizon zis heteroen iritziarekin alderatuz, berdinean ez epaitzea, balioa kentzea, kontutuan ez hartzea, kronikoki ados ez egotea, umore sexista erabiltzea, jokabide matxistak babestea, hizkera matxista erabiltzea, protokoloa subjektibizatzea, erlatibizatzea edo nahasmena sortze...

6

Aplikazio-eremua eta esku-hartze motak

Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) erakundeak egitura adarkatua du, UEUkide izateko askotariko guneak, moldeak eta konpromiso-mailak daudelako.

Erakundearen egitura eta adarkatze horiek guztiak kontuan hartuta bi esku-hartze mota bereiziko dira: esku-hartze zuzena eta erdibideko esku-hartzea. UEUrekiko loturak edo konpromiso-mailak markatuko du esku-hartzea zuzena edo erdibidekoa izango den. Esku-hartze zuzenarekin subjektu bakoitzari ibilbide bat proposatuko zaio. Aldiz, erdibideko esku-hartzean ez da jarraipena eskatuko duen prozesu izaerako interbentziorik egingo.

Esku-hartze zuzena

Esku-hartze zuzena egingo da UEUko kidegoan zuzeneko indarkeria-kasu bat gertatzen denean, izan erasoak jasan duena

UEUko kidea delako, izan erasoak egin duena UEUko kidea delako. UEUko kidegotzat hartuko dira UEUrekin lan-kontratua duten kideak (lantaldeko kideak), UEUren norabidearekin eta lan-ildoekin konpromiso-maila altua duten kideak (UEUko Talde Eragilea, sailburuak edota ekimen iraukorren batean diharduten bazkideak), eta UEUrekin kontratu-harremanen bat duten kideak. Izan ere, hiru geruza horietariko batean diharduten kideek hitzartu dute UEUren balioekiko zein oinarriekiko atxikimendua eta konpromisoa, eta hortaz, indarkeria matxistaren kontrako protokoloarekiko konpromisoa ere hitzartu dute.

Erdibideko esku-hartzea

UEUk sare zabal batekin jarduten du elkarlanean, eta, gainera, UEUk antolaturiko jardun akademikoetan eta formazio-jardunetan askotariko kideek hartzen dute parte. Aldi berean, UEUren espazioak beste erakunde batzuek erabiltzeko irekiak ere egoten dira. Hortaz, UEUren jardunean edo eremuetan askotariko erasoak gerta daitezke, UEUko kidegoa inplikatzeko ez dutenak, baina UEUren ardurapeko espazio edo jardunetan gertatzen direnak. Hori horrela, **UEUren espazioetan edota UEUk antolaturiko ekimen-jardueretan zeharkako parte-hartzeren bat izan dutenak (ikasleak, ikus-entzuleak, parte-hartzaileak...)** erasoren batean inplikaturik egonez gero, erdibideko

esku-hartzea aztertuko da, kasuan kasu erabakiak adostuz, betiere erasoak bizi izan duenari baliabideak eta babesa eskaintzeko prestutasuna erakutsiz.

Nola edo hala, badira salbuespenezko zenbait egoera: UEU bere eskumenekoa ez den edo eskumen soilakoa ez den tokian antolatzaile izatea, adibidez; edo UEU antolatzaile ez izan arren, espazioa UEUren ardurapekoa izatea edo UEUko kidegotzat hartzen den norbait inplikaturik egotea, esaterako. Egoera bakoitzean nola jokatu aurreikusiko da.

Edozein modutan, UEUra eraso baten berri ematera jotzen duen UEUko kide den orori, edo UEUrekin elkarlanean aritzen den/aritu den orori arreta egingo zaio.

UEUk bere jarduerak bi formatutan eskaintzen ditu, aurrez aurre eta online, eta biek pisu handia dute, bakoitzak bere mailan. Hartara, protokoloak bi jardun-eremu horiei eragingo die neurri berean, batetik bestera esku-hartzeak egokitu daitezkeen arren.

7

Kudeaketarako bitartekoak

Markoak

Erasoak kudeatzeko lanetan bi marko bereizi dira, bakoitza bere funtzio eta ezaugarriekin.

Talde iraunkorra

Berdintasun Batzordeko kideek osatuko dute, ezpada norbait partziala izateko arriskua dagoela edo erasoan inplikaturik dagoela. Kasu horretan, kide hori talde iraunkorretik aterako da (erasoan inplikaturik ez badago, protokoloa kudeatuko ez den uneetan Berdintasun Batzordeko kide izaten jarraituko du, protokoloaz gaindiko bestelako lanei begira eragiten ez duela baloratzen bada).

Funtzioak:

- Erasoen **jakinarazpenak jasotzea**.
- Lehen balorazioa egin eta **protokoloa aktibatu edo ez erabakitzea**.
- **Esku-hartze mota eta erasoaren nolakotasuna zehaztea**.
- Jarraipen-taldea osatu eta deialdia egitea.

Jarraipen-taldea

Talde hau **kasuaren arabera osatuko da**, honako figura hauekin: Berdintasun Batzordeko 2 kide (horietako bat arloarekin lotura duena), erasoak egin den proiektuko edo eremuko arduraduna eta proiektuaren antolaketan dagoen edo eremu horretan arduraren bat duen UEUko beste kide bat (aplikazio-eremuan horrela izendatuta badaude).

- **Talde txikia izatea hobetsiko da.**
- **Gutxienez taldeko kideen erdiak emakumeak edo genero-disidenteak izango dira.**
- **Gutxienez gizon zis hetero batek parte hartuko du.**
- Erasoa inplikaturik daudenak erabakigune eta marko hauetatik kanpo geldituko dira. Era berean, inplikaturik daudenekin harreman pertsonal estua duten pertsonen parte-hartzea saihestuko da.

Funtzioak:

- Informazioa jaso, aztertu eta erregistratzea.
- Talde iraunkorrak adostutako esku-hartze mota eta erasoaren nolakotasuna berrestea.
- Subjektu bakoitzari dagokion prozedura zehaztea.
- Kudeaketa, jarraipena, itxiera eta ebaluazioa egitea.

Kasu guztietan, UEUK eskaintako baliabideek ikuspegi edo oinarri feminista izatea bermatuko dugu, eta eraso egin duenak beste baliabide batzuetara jo nahiko balu, orduan ere ikuspegi feminista izatea bilatuko genuke.

Erasoa egin den eremua, tokia edo unea beste erakunderen batekin elkarlanean antolatutakoa bada, kontuan hartzeko aldagaia izango da UEUK eraso egin den testuinguruan zer funtzio izan duen (antolatzailea, laguntzailea, babeslea, gonbidatua...). Betiere, alde aurretik erakundearekin landu eta argitu beharko da gaiari nola helduko zaion.

Egiturari informazio-ematea

- Idazkari nagusiari beharrezko informazioa emango zaio prozesuaren hasieratik bukaerara. Ohikoan, idazkari nagusia ez da jarraipen-taldean egongo, baina kasuaren arabera, puntualki edo modu jarraituan parte hartzea balora daiteke. Jarraipen-taldean parte hartuko duten Berdintasun Batzordeko (talde iraunkorreko) bi kideen edo horietako baten bidez bermatuko da etengabeko koordinazioa.
- Lantaldeari eta Talde Eragileari soilik lantaldeko norbait inplikaturako dagoenean eta kasua oso larria denean (ikus "Erasoen nolakotasuna" atala) jakinaraziko zaie (behar baino informazio gehiagorik eman gabe), eta betiere eraso jasan duenari aurrez esanda.
- Batzar Nagusian urtean zehar protokoloa zenbatetan aplikatu den jakinaraziko da.

Erregistro-tresnak

Aktibatzen diren kasu guztiekin, dokumentazio-eta erregistro-lana egingo da, aurrez ezarritako erregistro-tresnen bitartez.

Baliabideak

Beharrezkoa den kasuetan, prozeduraren batek hala eskatzen badu edo kasuak UEUK dituen ezagutza eta baliabideak gainditzen baditu, kanpo-aholkularitza profesionalera joko dugu. Horretarako, baliabide-sarea identifikatuta izango dugu:

- Abokatuak
- Psikologoak eta terapeutak
- Zerbitzu sozial-instituzionalak
- Gaiari adituak diren profesionalak: trebakuntza feministak, maskulinitate-tailerrak edo desbateretxe-saiokak, kasuen kudeaketarako aholkulariak...

8

Jarduteko prozedura

Erasoaren berri ematea

Nola eman daiteke eraso baten berri?

Erasoaren berri talde iraunkorrari eman beharko zaio, eta komunikatzeko modua idatzizkoa zein ahozkoa izan daiteke. Hiru bidetatik helarazi ahalko da:

1. Talde iraunkorreko edozein kideren bitartez.
2. Erasoa egin den uneko edo tokiko UEUKo arduradunaren bitartez.
3. Talde iraunkorraren helbide elektronikoro korra bitartez (erasomatxistak@ueu.eus).

Nork eman dezake eraso baten berri?

Eraso batez jakitun den edonork komunikatu dezake, bai eraso jasan duenak berak zuzenean, baita hirugarren batek ere. **Jakinarazpen anonimoak**, ordea, **ez dira aintzat hartuko**, hauek kudeatzeko elementu faltagatik.

Protokoloaren aktibazioa

Prozedurari hasiera emango dio talde iraunkorra eraso baten jakitun izateak. alde horri dagokio, beraz, lehen balorazio baten ostean, protokoloa aktibatzea. Aitzitik, protokoloa ez aktibatzea erabaki dezake, protokolo honen helburu eta funtzioei erantzuten ez dieten kasuen aurrean.

Protokoloa aktibatzeko ez da eraso jasan duenaren baimenik beharko. Zalantza gabe, batez ere erasoaren berri eman duena bera izan ez bada, hasieratik jakitun egon dadila bermatuko da, eta bere iritzia kontuan hartuko da, baina ez da baldintzatzailea izango; erakunde gisa berezko ardura dugu. Betiere, eraso jasan duenak protokoloa aktibatzearen inguruan kezkarik, zalantzarik edo beldurrik badu, informazioaren kudeaketa eta esku-hartzea horren arabera egokituko dira.

Talde iraunkorrak, protokoloa aktibatzearekin batera, erasoaren nolakotasuna eta aplikazio-eremuaren arabera esku-hartze mota zehaztuko ditu.

Lehenbailehen, protokoloa aktibatu izana jakinaraziko die eraso jasan duenari, eraso egin duenari eta, horrela badagokio (ikus "Kudeaketarako bitartekoak" atala), UEUren egiturari ere bai.

Bi salbuespen-egoera:

- *Erasoa gertatzen den unean bertan esku hartu behar izatea. Kasu horietan, uneko arduraduna izango da erabakia hartu eta esku-hartzea gauzatuko duena; erantzun azkarreko protokoloa baliatuko du horretarako eta ondoren jakinaraziko dio gertatutakoa talde iraunkorrari.*
- *Erasoa larritasun handikoa bada eta UEUtik haragoko prozedura ireki bada (judiziala edo poliziala, esaterako), urgentziazko neurriak hartu ahal izango dira, protokoloaren izaera eta ohiko prozedura gainditzen dutenak.*

Egoeraren azterketa

Ezer baino lehen, **egoerak hala eskatzen badu, eraso jasan duena babestu eta haren egunerokotasuna normaltasunez egitea bermatzeko helburuz, behin-behineko neurriak hartuko dira**. Besteak beste:

- Erasoa jasan duenak eraso egin duenarekin espaziorik ez konpartitzea eta harreman laboralak etetea, betiere, eraso jasan duenaren mesedetan.
- Erasoa egin duena jendaurreko agerpenetatik alboratzea eta, hala izatekotan, ardura-postuetatik kentzea.
- Komunitatean edo kolektiboan, behar izanez gero, zurrumurruek ekiditeko edota antsietateak lasaitzeko esku hartzea.

Informazioa jaso

Erasoa jasan duenarekin eta eraso egin duenarekin hitz egingo da, bakoitza bere aldetik. Horrez gain, beharrezkoa edo lagungarria bada, lekukoekin edo erasoari buruzko informazio kualitatiboa izan dezaketenekin ere hitz egingo da.

Erasoa jasan duenarekin zein eraso egin duenarekin, **batarekin zein bestearekin, jarraipen-taldeko bi kide** elkartuko dira, testigantzak jaso ostean zalantzarik ez suertatzeko, gaizki-ulertzeak ekiditeko eta prozesuan zehar bertsio-lehiarik ez egoteko. Era berean, **nahi duten pertsonarekin lagunduta etortzeko aukera ere** emango zaie.

Jakina, lehentasuna izango dute eraso jasan duenaren behar eta denborek. Harekin egoteko egoerarik erosoena bilatuko da. Horretarako, gertuko jarrera izatea lagungarria izango da, baita espazioa ezaguna eta lasaia izatea ere. Informazioa eman duena ez bada eraso jasandako bera, berarengana hurbiltzeko edo beraren ingurune hurbilera heltzeko modurik egokiena bilatuko da.

Elkarrizketetan zehar hauek izango dira gidalerroak:

Erasoa jasan duenarekin

- Gure babesa adierazi eta protokoloaren berri emango diogu.
- Zer nahi eta behar duen galdetuko diogu, baita hori pentsatzeko denbora eskaini ere.

- Isiltasunak errespetatuko ditugu.
- Ez ditugu haren bizipenak eta gertatukoaren kontakizuna zalantzan jarriko, ez epaituko eta ez jarrera paternalistik izango ere.
- Konfidentzialtasuna zainduko dugula adieraziko diogu.

Erasoa egin duenarekin

- Iritsitako gertaeraren berri emango diogu, indarkeria matxistaren markoan kokatuko dugu, eta horrelako egoerak kudeatzeko protokolo bat eta jarraipen-talde bat ditugula jakinaraziko diogu, neurri eta proposamen zehatz batzuekin.
- Protokoloaren filosofia azalduko diogu eta, oinarriekin bat datorren prozesu bat abiarazteko, bere ardura hartzea eta jarrera aktiboaren garrantzia azpimarratuko dizkiogu.

Garrantzitsua da kontziente izatea eragindako minaz ohartzea, onartzea eta jarrera arduratsua agertzea elkarrizketa-prozesu baten ondorio izango dela, gehien-gehienetan. Beraz, denbora-tarte bat utziko zaio.

Eragindako mina onartzen badu

Eraldaketa eta birgizarteratze feminista bati begira prozesu bat proposatuko zaio.

Eragindako mina onartzen ez badu

Beste era bateko erabakiak hartu ahalko dira, hala nola kaleratze zuzena edo salaketa publikoa. Kasu horretan, idatziz jaso beharko da. Onartu gabe eta aldeko jarrerarik erakutsi gabe jarraituz gero, horren ondorioak.

Erasoaren dimentsioa definitu

Informazioa jaso ostean, erasoaren nolakotasuna berriz definituko da, aurretik aintzat hartutako bi irizpideak kontuan hartuta: erasoen sailkapena eta testuinguruari lotutako faktoreak. Zehaztapen-ariketa horrek markatuko du egoeraren larritasun-maila eta prozedura.

Kudeaketaren urratsak eta neurriak

Lanketa hiru dimentsiotan egingo da: eraso jasan duenarekin, eraso egin duenarekin eta komunitatearekin. Horietako bakoitzean hartzen diren ekinbide eta erabakien inguruan zer eta nola jakinarazten den tentuz aztertuko da.

Erasoa jasan duenari, zaintza, babesa eta laguntza eskainiko dizkiogu. Bere beharrak galdetu, identifikatu eta entzungo ditugu, bere erabakiak errespetatuko ditugu eta, bere inguruarekin batera, zaintzarako eta babeserako neurriak hartuko ditugu, honakoak bermatzeko:

- Ohiko jardunarekin eta barne-bizitzarekin normaltasunez eta lasaitasunez jarraitzea.
- Ohiko espazioetan askatasunez eta baldintzatzailerik gabe parte hartzeko aukera izatea.

Jarduteko prozedura

Erasoa egin duenarekin, hitzarmen edo adostasun batera iritea garrantzitsua da: proposamenak onartu eta dagokiona egiteko ardura eta konpromisoa adierazi behar ditu. Berarekin batera denborak eta epeak jarriko ditugu, baita prozesuaren jarraipena diseinatu ere. Erasoa, egoeraren eta haren jarreraren arabera, **deseraikitze- eta birgizarteratze-terminoetan egin beharreko lanketak** pentsatuko ditugu. Prozesu hori egin bitartean, **beto-izaerako neurriak ere hartu ahal izango dira**: betetzen dituen funtzioei dagokienez, parte hartzen duen espazioei dagokienez, erreferentzia publikoari dagokionez, lanaldiari edo soldatari dagokionez...

Azkenik, **komunitateari begirako** esku-hartzeari erreparatuko diogu. Gertaerak izan duen inpaktuaren arabera, behar kolektiboak identifikatu eta asetzeko (**berrosatze kolektiborako**) kudeaketa ere pentsatuko dugu, tartean, gertakariak sorturiko minak arindu edo sendatzeko espazio zainduak eta baliabideak eskainiz. Horrekin batera, gertaeraren inguruabarretan **bakoitzaren arduraz hausnartzea** bilatuko dugu.

Orain artekoak kontuan hartuta, esku-hartze zuzena edo erdibidekoa izango den zehaztu, eta dagozkion urratsak eta neurriak erabakiko dira.

Esku-hartze zuzena

Prozedura edo ibilbidea erasoaren larritasunaren (sailkapenaren) arabera izango da. Hiru prozedura egon daitezke: 1. prozedura, 2. prozedura edo 3. prozedura; 3. prozedura eraso oso larriei dagokie, eta berdin gainerako prozedurekin, gradualki. Betiere, jakitun izanik testuinguruko elementuek dinamika lineal hori aldaraz dezaketela eta prozesuan zehar gertatzen diren aurrerapenak edo atzerapenak prozedura batetik besterako saltoak ekar ditzaketela.

Oharra: eraiketen kasuan, komunitatearen dimentsioan soilik egongo da prozesua egiteko aukera.

Erasoa jasan duena

1. Prozedura

- Dakarrena kontuan hartu eta garrantzia eman.
- Babes kolektiboa adierazi.
- Lan-dinamika malgutzeko aukera eskaini, beharrezkoa balu.

2. Prozedura

- Entzun eta aholkatu.
- Babes kolektiboa adierazi eta konfiantzazko babes-sarea sortu.
- Bere beharrak eta denborak kontuan hartu eta ahal den neurrian, bideratu.
- Babes-neurrien beharra eta espazioen kudeaketa berarekin baloratu.
- Lan-dinamika malgutzeko aukera eskaini (tartean, telelanerako aukera), beharrezkoa balu.

3. Prozedura

- Babes kolektiboa adierazi eta konfiantzazko babes-sarea sortu.
- Bere beharrak eta denborak kontuan hartu eta, ahal den neurrian, bide eman (saio bat atzeratu, baja...).
- Babes-neurriak eta espazioen kudeaketa berarekin adostu.
- Lan-dinamika malgutzeko aukera eskaini (tartean, telelanerako aukera), beharrezkoa balu.
- Ikuspegi feministatik jarduten duten profesionalen berri eman, nahi izanez gero, horien zerbitzuetara jo dezan.

Erasoa egin duena

1. Prozedura

- Egindakoak ohartarazi eta jarrera matxista ez errepikatzen eskatu. Lehentasunez ahoz jakinaraziko zaio, eta ahal dela, haren eremuko arduradunak egingo du.
- Entzungo zaio.
- Formazio feminista espezifikoa edo maskulinitate-ereduena proposatu ahal zaio.
- Jarrera-aldaketarik ez badago eta erasoak errepikatzen badira, 2. prozedura jarriko da martxan.

2. Prozedura

- Egindakoak ohartaraziko zaio (ahoz eta idatziz), eta entzungo zaio.
- **Egindako mina onartuz gero**, prozesu bat proposatuko zaio (gutxienez 6 hilabeteko iraupena izango duena).
- Formazioa jasotzeko konpromisoa hartuko du. Trebakuntza feminista edota lanketa pertsonala egiteko ezagutzen ditugun baliabideak erraztu diezazkiokegu.
- Horien berri izango du jarraipen-taldeak, eta jokamoldearen jarraipen zuzena ere egingo du.
- Erasoa jasan duenaren egoera kontuan hartuz, **babes-neurri moduan eta behin-behinean**:
- Espazio eta funtzio batzuetatik baztertuta izan daiteke (bilerak, lantaldeak, Telegram taldeak...).
- Telelana egitea eskatu ahal zaio egoitzetara ez gerturatzeko.
- Komunikazio-bideak zaindu eta lan-kontuak hirugarren pertsona baten bidez helaraztea balora daiteke.
- Bizitza publikotik kanpo utziko da.
- **Egindako minaren gaineko ardura hartzen ez badu**, aldaketarik ez badago, egoera errepikatzen bada edo antzeko egoera bat gertatzen bada, 3. prozedura aktibatuko da.

3. Prozedura

- Egindakoak ohartaraziko zaio (ahoz eta idatziz), eta entzungo zaio.
- **Egindako mina onartuz gero**, prozesu bat proposatuko zaio (gutxienez urtebeteko iraupenaz).
- Prozesuak eskaera ezberdinak izan ditzake: tutoretzapeko prozesu terapeutikoa, trebakuntza feminista... Horretarako ezagutzen ditugun baliabideak erraztu diezazkiokegu.
- Horien berri izango du jarraipen-taldeak
- Erasoa jasan duenaren egoera kontuan hartuz, **babes-neurri moduan**:
- Lan-espazio guztietatik kanporatua izango da.
- Funtzio batzuetan mantentzea baloratzen bada, telelana egitea eskatuko zaio eta eraso jasan duenarekin ez du komunikaziorik izango (hirugarren pertsona batek bitartekari-lana egin dezake).
- Bizitza publikotik kanpo utziko da.
- Bere lan-jarduera eta funtzioak guztiz etetea balora daiteke.
- Kasu larrietan behin betiko kanporatze zuzena baloratuko da.
- **Egindako minaren gaineko ardura hartzen ez badu** eta prozesuan parte hartzen ez badu, behin betiko kanporatua izango da.

Komunitatea

1. Prozedura

- Erasoa lankideen aurrean gertatzen bada, guztiek izango dute momentuan egoera mozteko ardura. Hortik aurrera ere, guztion ardura izango da antzeko egoerak identifikatzea eta moztea.
- Unean uneko gogoeta egin daiteke gertatutakoaren inguruan.
- Berdintasun-planean bildutako trebakuntza jarraitua izango da jarrera matxistak deuseztatzeko bidea. Besteak beste: emakume eta genero-disidenteentzat ahalduentzea sustatzea, gizon zis heteroentzako maskulinitate eta desboteretze/deseraikitze tailerrak, formazio feminista, taldeen parte-hartze eta demokratizaziorako tresnak, gatazken kudeaketa, botere-harremanen lanketa...

2. Prozedura

- Erasoa lankideen aurrean gertatzen bada, guztiek izango dute momentuan egoera mozteko ardura. Hortik aurrera ere, guztion ardura izango da antzeko egoerak identifikatzea eta moztea.
- Unean uneko gogoeta egin daiteke gertatutakoaren inguruan.
- Kasuaren inpaktuaren arabera saio kolektibo espezifikoko beharrezkoak diren baloratuko da: indarkeria matxistan trebakuntza, gogoetarako espazioak, emakumeentzako eta genero-disidenteentzako espazio berezituak...

3. Prozedura

- Erasoa lankideen aurrean gertatzen bada, guztiek izango dute momentuan egoera mozteko ardura.
- Kasuaren inpaktuaren arabera saio kolektibo espezifikoko beharrezkoak diren baloratuko da: indarkeria matxistan trebakuntza, gogoetarako espazioak, emakumeentzako eta genero-disidenteentzako espazio berezituak, eraso jasan duenarekin nola jokatu jakiteko formazioa...

Informazioaren eta kasuaren kudeaketa

1. Prozedura

- Erasoa jasan duenak berak kudeatu nahi izanez gero, hor amaituko da esku-hartzea.
- Jarraipen-taldera jotzen bada, marko hurbileneko arduradunari helaraziko zaio gertatutakoa. Egoki ikusiz gero, bera (erasoa jasan duenarekin batera edo ez) arduratu daiteke eraso egin duenarengana joateaz egindakoak ohartarazteko eta bere jarreraren gaineko ardura har dezan eskatzeko, berriro errepika ez dadin.
- Errepikakorra bada edo arduraduna bada eraso egin duena, jarraipen-taldeak kudeatuko du hasieratik.

2. Prozedura

- Jarraipen-taldea arduratuko da informazioaren eta kasuaren kudeaketaz.
- Hala baloratuz gero, dagokion marko edota arduradunekin partekatuko da beharrezkoa ikusten den informazioa.

3. Prozedura

- Jarraipen-taldea arduratuko da informazioaren eta kasuaren kudeaketaz. Beharrezkoa ikusten bada, kanpo-aholkularitza eska daiteke.
- Hala baloratuz gero, dagokion marko edota arduradunekin partekatuko da beharrezkoa ikusten den informazioa.
- Prozedura judiziala abiatuko balitz, jarraipen-taldea gainditzen duten erabakiak idazkari nagusiak edota zuzendaritzak hartuko lituzke (kaleratzea). Kasu honetan, UEUK dituen datuak prozesuaren mesedetan jartzeko prestutasuna agertuko du. Larritasunaren arabera, prozedura judiziala UEUK berak zabaltzea baloratuko da.
- Erasoa publiko egingo da baldin eta eraso jasan duenak hala eskatzen bada edo berak publiko egiten bada.

Erdibideko esku-hartzea

UEUk antolaturiko ekimen-jardueretan edota UEUren ardurapekoak diren espazioetan zeharkako parte-hartzeren bat izan dutenak (ikasleak, ikus-entzuleak, parte-hartzaileak...) erasoren batean inplikaturik egonez gero, erdibideko esku-hartzea jarriko da martxan. Uneko arduraduna izango da erabakia hartu eta esku-hartzea gauzatuko duena, eta erantzun azkarreko protokoloa baliatuko du horretarako.

Jarraipena

Jarraipenari garrantzia eman behar zaio, zailena izan ohi delako. Erasoa baten berri izatean, hasieran, bestelako lanak paralizatu egiten dira, baina hortik denbora gutxira gertatutakoa eguneroko beharrek estalita gelditzeko arriskua dago. Prozesua aktibo mantentzen duten energia, baliabide eta denbora agortzen joaten dira.

- Erasoa jasan duenarekin: zuzenean berarekin harremanetan egongo garen edo inguruko lagunaren bitartez bideratuko dugun finkatuko dugu, nolako maiztasunarekin, zer informazio ezagutzea nahi duen eta zein ez argituko dugu...
- Erasoa egin duenarekin: jarraipenaren maiztasuna trazu finagoarekin diseinatuko dugu, terapia edo bidelaguntza-prozesua

egiten ari denarekin harreman zuzena edukiko dugun finkatuko dugu...

Kasu bakoitzak bere tempusak eta moduak izango baditu ere, gutxienez hilean behin biek, bakoitza bere aldetik, hitz egiten saiatuko gara. Betiere, ahal dela, mintzakide berberak mantenduko dira prozesu osoan zehar.

Prozesua ondo badoa eta hartutako konpromisoak betetzen ari direla baloratzen badugu, beto-izaerako zein bestelako neurriak malgutzen joango gara.


Kontrara, erasoa egin duenak prozesuan zehar hartutako konpromisoak apurtzen baditu, hasierako hitzarmen edo proposamena ekarriko diogu gogora, berak hartu zituen ardurak eta adostutako erabakietan berresteko. Jarrera aldatzen ez badu, prozesua eta hitzarmena apurtutzat jo ditzakegu eta bestelako neurri nahiz erabakiak hartzeko aukera izan.

Itxiera eta ebaluazioa

Prozesuari itxiera ematea **garrantzitsua bezain beharrezkoa da**, nahiz aurrez zehaztutako helburuak oso-osorik ez bete. Ahal dela, itxiera erasoa egin duenarekin zein jasan duenarekin modu adostuan egitea bilatuko dugu.

Berebizikoa da kasuaren kudeaketan diharduten jarraipen-taldeko kideak zaintzea. Energia eta denbora andana eskatzen duten prozesuak izaten dira, inplikatuegan arrasto emozional eta sozialak uzten dituztenak; izan prozesuak eskatzen dituen lanengatik (testigantzak entzun, prozesua kudeatu, etab.) izan kanpo-presio, epai edo iritziengatik.

Erantzun azkarreko gida



Erantzuna

- **Eraso jasan duenari** babesa eskaini eta behar duen neurrian eta presio gabe lagundu.
- Leku lasai eta seguru batera eraman, bakarrik ez egotea ziurtatu eta bere beharren inguruan galdetu.
- Protokoloaren berri eman.
- **Eraso egin duenarekin** hitz egin eta jarrerak bertan behera lagatzeko eskatu. Bere horretan jarraitzen badu, **espaziotik irteteko eskatu**.
- Protokoloaren berri eman.
- **Komunitateari** gertatu denaren berri eman ete UEUk indarkeria matxistaren aurrean duen jarrera gogorazi.

- Eraso egin duenari espaziotik irtetea eskatzera goazenean, kontuan izan:
- Bi pertsona joango dira.
 - UEUtik arduradun bakarra dagoenean, bigarren pertsona bat bilatzen saiatuko da (antolatzailea, irakaslea ...).
 - Arrisku-egoera sortuko dela pentsatuz gero, ez da espaziotik kanporatuko.

